

Bidebieta

Animaliak ditzutenen ardurez mintzo

Joan den urtearen amaieran, Tolosako Udalak animalien jabeei zuzendutako kanpaina egin zuen. Auzko Oneski Garbizu 23 urteko biologoa aritu zen aipatu kanpainen.

Ainara Sarobe


Zer izan zen kanpaina hura?

Tolosako Udalak jasotako keza guztien ondorioa izan da. Parte zaharrean, batez ere, dendariak haserre daude beren denden atariak zikin-zikin egon ohi direlako. Udalak eskuorria egin du etxeko animaliak ditzutenen betebeharrekin, eta Oneka Zapirain eta biok eskuorriaren edukiaren berri eman dugu, kalez kale. Animalia bat izateak ardura batzuk dakartza. Kanpaina Gabonetan egin zen. Izan ere, egun horietan animaliak opartu ohi dira, eta gero askok utzi egiten dituzte.

Nolakoa izan zen tolosarren erantzuna?

Oro har, ona. Batzuek alde egin zuten gu haiengana hurbiltzerakoan. Beste batzuek, ordea, hitz egiten hasi orduko, zertaz ari ginen bazekiten, aurretik komunikabideetan ikusia edo entzuna zutelako. Ideiak eta proposamenak ere egin zizkiguten, eta ez soilik txakurrekin lotutakoak. Adibidez, usoentzat usategi bat egitea proposatu ziguten, usoen ugalketa kontrolatu ahal izateko. Kexak ere jaso ditugu: Tolosan zakarrontzi gutxi daudela, Udalak erraztasun gutxi ematen dituela...

Eta Donostiari buruz, zer diozu?



Ni Bidebietakoa naiz, eta auzoa zikin dago. Erdialdeko kaleak, berriz, garbiagoak ikusten ditut. Donostian ere informazio kanpaina egiteari ondo deritzot. Ondo dago animaliak izatea, baina ardura batzuk izan behar dira. Eta ez naiz soilik kakei buruz ari. Arau batzuk bete behar dira: txertoak jarri behar zaizkie, erroldan

izena eman behar da, eta abar.

Donostian txakurrak ditzutenen jokaera nolakoa da Tolosakoekin alderatuta?

Tolosako gizon batek, donostiarra nintzela esan nionean, Donostiako kaleak Tolosakoak baino askoz txukunagoak egon ohi direla aipatu zidan. Baina

Ikastaroak gaztelekuan

Kontadores gaztelekuak zenbait ikastaro antolatu ditu: 16 eta 30 urte bitartekoentzat: anizerkia, gidogintza, argazkigintza... Izena emateko gaztelekuara joan edo 943 390 122 telefono zenbakira deitu besterik ez dago.



nik ez dut horren argi. Leku guztietan, denetarik dago. Tolosan, adibidez, herritar batzuk beste batzuk baino arduratsuagoak dira, eta txakurrak mendira eramaten dituzte.

Donostiako zenbait lekutan, Egiako Plaza Berrin esaterako, pipi-can delakoa jarri dute, bertan txakurrek txiza eta kaka egin dezaten. Eraginkorrak al dira guné horiek?

Nik ez dut txakurrik, baina tolosar batek bere txakurra pipi-can horietara eraman zuela esan zidan, eta animaliak ez zuela kaka edo txiza egin nahi izan. Alegia, txakurra beste leku batera joaten ohituta zegoela. Kanean egin beharrean, txakurra guné berezi batzuetara eramatearen aldekoa naiz, baina animalia toki horietara joateko hezi behar da.